

7. FUNTZEZKO BALIABIDEAK

Gure funtsezko baliabideak mota ezberdinetakoak dira, baina guztiak zentro egokia, animalien eta pertsonen zaintzan trebatutako langileak, eta hasierako finantza-laguntzak proiektua martxan jartzeko balioko dute.

Honekin batera, baliabide hauetako batzuk, kanpoko laguntzetatik lortuko dira, tabernaren kudeaketa eta ustiapena edo monitore batzuen kontratazioak adibidez, kanpoko enpresa batek egingo ditu, hauekin kolaborazio antzerako bat egingez. Eredu horri esker, proiektu hau hain garestia ez izatea lortuko dugu gure onurarentzat, eta aldi berean, kanpo-operadoreek beren markaren ikusgarritasuna eta presentzia indartu ahal izango dute espazioaren barruan, alde guztientzat onuragarria den lankidetzaren esparru batean.

Horiez gain, behar ditugu komunikazio baliabideak eta eguneroko materialak (janaria, higiena, jolasak). Baliabide hauek udal, elkarte eta babesleen lankidetzarekin erabiliko dira, adinekoei eta txakurrei ongizate emozionala eta soziala eskaintzeko, proiektuaren iraunkortasuna bermatuz.

Ondorengo taulan zehazten dira gure proiektuak arrakasta izan dezan funtsezkotzat ditugun baliabide ukigarri eta ukiezinak adierazten dira:

BALIABIDE MOTA	DESKRIBAPENA	NORK ETA NONDIK	NOLA ERABILIKO DA
Baliabide Fisikoak (materialak)	Lokala, barnealde eta kanpoalde seguruak, jolas eta zaintza espazioak	Udal laguntza edo alokairua	Txakurren zaintza, jarduerak eta adinekoentzako gune soziala
	Janaria, higiene produktuak, jolas tresnak, bulego-materiala	Hornitzaile lokalak	Eguneroko jarduera eta arreta
Giza baliabideak	Zaintzaileak, albaitaria, etologoa, administraria	Kontratazioa edo boluntariotza bidez	Maskoten eta adinekoen arreta, kudeaketa eta koordinazioa
Baliabide intelektualak	Animalien zaintza, portaera, komunikazio soziala	Aditu profesionalen bidez	Prestakuntza, protokoloen diseinua eta kalitatearen jarraipena
Finantza baliabideak	Dirulaguntzak, babesle pribatuak, ordainketak	Foru-aldundiak, udalak, bezeroak	Hasierako inbertsioa, soldata eta gastuak estaltzeko